**<u>2015 URTEKO SAN MARTIN JAIETAN SAN MARTIN PLAZAN JARRIKO DEN TXOSNAREN ESPLOTAZIOA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZAK</u>**

**1. <u>Deialdiaren xedea</u>:**

2015ko irailaren 12an, 13an, 14an, 15ean eta 16rako San Martin plazan, Udalak jarriko duen txosnaren esplotazioa adjudikatzea da deialdi honen xedea.

Txosna honen arrazoia San Martin plaza jaietan girotzen laguntzea da.

Halaber, irailaren 12an, Feria egunean, plaza girotzeaz gain herriko hainbat haravtegik eurek (Bergarako udalak adieraziko die aurrez zeintzuk diren) eta Bergaran egindako odolosteak ezagutzera emateko dohain emango dizkieten odolosteak saltzea ere bada deialdiaren xedea.

**2. <u>Eskaerak</u>:**

Bergarakoak izan eta irabazi asmorik ez duten Kultura edo Kirol Elkarteek, Talde Herrikoiek eta elkarte benefikoek aurkez ditzakete eskaerak.

Adinez nagusia den eta jarduteko gaitasun osoa duen pertsona batek sinatu beharko du eskaera. Eskaera idatziz aurkeztu beharko da, eta bertan baldintza-orri hauek jasotzen dituzten betebehar guztiak ezagutu eta betetzeko prest daudela azaldu beharko da.

Eskaerak aurkezteko epea **2015ko uztailaren 20an**, 12:00etan bukatuko da.

**3. <u>Adjudikazio-hartzaileen betebeharrak.</u>**

a) Jende aurrean lana egin behar dutenek euskaraz hitz egiten jakin beharko dute.

b) Ez da musika, kartel edo antzekorik jartzerik egongo prezioen eta taldearen izena adierazten dutenak izan ezik.Feria egunean, dohaintza egin duten harategienak adierazten diituena jariko da.

c) Udaletik antolatu dituen ekintzen ordutegiarekin bat etorriz adierazitako egun eta ordutegian zabalik izatea. Halaber *<u>irailaren 12an</u>* goizean odoloste dastatzerako zabalik izan beharko da 11:00etatik eta 15:00etara

d) Txosna utzitako baldintza berdinetan bueltatu beharko da eta beranduen ere irailaren 17ko arratsaldeko 14:00etarako hustu beharko dute txosna.

e) Adjudikazio-hartzaileek arduradun bat izendatu beharko dute Udalarekiko harremanetarako.

Izendapen hau eta kontakturako telefono mugikorraren zenbakiarekin idatziz egin beharko da eta Udaletxeko Idazkaritzan aurkeztu beharko da adjudikazioaren berri jasotzen dutenetik kontatzen hasi eta 5 egun naturaleko epean.

f) Txosnan udalak aurrez adierazko dien Bergarako Harategiek dohainik emandako *ODOLOSTEAREKIN* egindako pintxoa saldu beharko dute produktu hauen prezioa gehienez **2** eurokoa izango da ardoa, sagardoa edo antzerakoak barne. Ogia eta edaria txosnaren ustiatzaileen kontura izango da.

Edari gabe ere saldu ahal izango da odoloste pintxoa, horrela eskatzen duten guztiei, eta kasu honetan salmenta prezioa, <u>gehienez ere **1**</u> eurokoa izango da.

Halaber produktu hauek prestatu eta saltzeko orduan Harategi horiek emandako instrukzioak jarraitu beharko dituzte.

g) Goiko atalean adierazi den moduan dohaintza egin duten harategien aipamena jarri beharko dute modu ikusgarri batean horretarako udalak egingo duen kartela txosnan bertan.

j) Egun horretarako behar den generoa batzeko, bestelako behin-behineko instalazio edo eranskinik beharko balute adjudikazio-hartzaileek, beren kontura muntatu eta kendu beharko dute, aurrez okupazioa zelakoa izango den Udalean jakinarazi beharko dutelarik. Instalazio hau ere txosna husteko epe berdinean kendu beharko dute.

k) Sortzen diren hondakinak ongi sailkatuak biltzen direla ziurtatu beharko da. Horretarako zailtasun bereziak egon daitezkeela uste bada hondakinen informazio bulegora jo daiteke. Bertan gidak, hiztegiak edo kartelak jaso daitezke hondakinak egoki sailkatzen laguntzeko.

   Udala arduratuko da ontziak ekitaldia burutuko den gunera eramateaz. Bestelako eskaerarik ez badago organikorako 2 edukiontzi utziko ditu (120 litrokoak). Jaia bukatzean udala arduratuko da ontzi hauek jasotzeaz eta larrialdi gunera eramateaz. Ontzi arinak, papera eta/edo beira sortuz gero, adjudikatzaile-hartzailearen ardura izango da dagokio edukiontzietara botatzea.

l) 375 euroko fidantza jarri beharko dute aurrez.

m) Edalontzi berrerabilgarriekin lana egin beharko da derrigorrez.

**4. <u>Adjudikazioa</u>:**

Zozketa bidez egingo da esplotazioen adjudikazioa, uztailaren 20an 13:00etan Udaletxean.

Eskaera aurkeztu dutenen artean egingo da zozketa eta aurkeztu diren guztiak aterako dira.

Dena den, aurreko 2 urteetan adjudikazio hartzaile izan zirenak aurkeztuko balira eta eskaera gehiago ere balego, haiek kanpoan utziko dira, eta besteen artean egingo da zozketa, atera ahala hurrenkera zehaztuz zerrenda egingo delarik.

Esplotazioa konpartitzea posible izango da baldintza hauekin:

1. Zozketaren arabera adjudikazio-hartzaile suertatu direnen oniritzia beharko da.
2. Zozketaren ondorioz egindako zerrenda errespetatu beharko da; hau da, konpartitzeko preferentzia izango dute 2., 3. etab...
3. Konpartitzea erabaki badute, horren berri eman beharko dute udaletxean.

**5. <u>Esplotazio eskubidea</u>:**

Adjudikazio-hartzaileak ezin izango du esplotazio eskubidea beste edozein talde, elkarte etab.ei zeditu. Horregatik interesik ez balu, beranduen ere 2015ko uztailaren 27rako Bergarako Udalari idatziz jakinarazi beharko lioke eta honek erreserba bezala zozketan atera denari adjudikatuko dio.

**CONDICIONES QUE REGIRAN LA EXPLOTACION DE LA CHOZNA QUE SE COLOCARA EN LA PLAZA SAN MARTIN CON OCASIÓN DE LAS FIESTAS DE SAN MARTIN DEL 2015**

**1. Objeto de la convocatoria:**

Es objeto de la presente convocatoria la adjudicación de la explotación de la chozna a instalar en la plaza San Martin los días 12,13,14, 15 y 16 de septiembre de 2015.

La razón de colocación de la chozna es poner ambiente en la Plaza San Martin.

El día de la Feria, 12 de septiembre, además deberán vender las morcillas que varias carnicerías de Bergara (se comunicará con antelación cuales son) pondrán a su disposición de forma gratuita con la finalidad de dar a conocer el producto elaborado por ellos en Bergara.

**2. Solicitudes:**

Podrán presentar sus solicitudes todas las entidades culturales, deportivas, organizaciones populares y asociaciones benéficas bergaresas sin ánimo de lucro.

La solicitud deberá ir firmada por una persona mayor de edad y con plena capacidad de obrar. Los interesados deben de presentar sus solicitudes por escrito y en las mismas deberán manifestar que conocen y están dispuestos a cumplir las condiciones arriba recogidas en este pliego.

El plazo de presentación de solicitudes finaliza el 20 de julio de 2015a las 12:00 horas.

**4. Obligaciones de los adjudicatarios.**

a) Todo aquel que va a trabajar en la txosna ha de saber euskera a nivel hablado.

b) No se podrá poner música, ni colocar carteles ni similares, salvo los carteles indicativos de los precios y el nombre del grupo. El día de la feria se colocará el cartel referente a las carnicerías que han hecho la donación.

c) La chozna deberá de estar abierta cada día al menos en el horario en que el ayuntamiento haya programado actos a realizar en la Plaza San Martin, y que se notificarán al adjudicatario. Además, el 12 septiembre durante la mañana de 11:00 horas a 15:00 horas para la degustación de las morcillas.

d) La txosna se deberá devolver en las mismas condiciones en que se entrega y debrerá vaciarse como muy tarde para las 14:00 horas del 17 de septiembre.

e) Los adjudicatarios deberán nombrar un responsable a efectos de representación ante el Ayuntamiento.

   El nombramiento se realizará por escrito y se presentará en Secretaría, junto con el número de teléfono móvil para contactar en caso de necesidad, en el plazo de 5 días naturales contados a partir de la notificación de la adjudicación.

f) En la txosna deberán de vender pinchos de *MORCILLAS* que han sido donados gratuitamente por las carnicerías (cuyos datos se facilitarán con antelación) al precio máximo de **2 euros**, incluido el vino, sidra o similares. El pan y la bebida serán por cuenta del adjudicatario de la txosna.

   Así mismo se venderá únicamente el pincho, a todo aquel que así lo solicite, siendo su precio máximo de venta ***1 euro*.**

   Asimismo deberán de cumplir las instrucciones dadas por las carnicerías para su preparado y posterior venta.

g) Tal y como se ha señalado en el apartado superior, las carnicerías que han efectuado la donación deberán ser mencionadas de modo bien visible, debiéndose colocar en la chozna el cartel que para ello realizará el ayuntamiento.
h) Si los adjudicatarios necesitan alguna otra instalación o anexo provisional para almacenar el género para ese día, deberán montarlo por su cuenta y desmontarlo en el mismo plazo que el concedido para vaciar la txosna. Así mismo deberán comunicar previamente al Ayuntamiento de que instalación se trata.
i) El adjudicatario tendrá que asegurarse de que se separan los residuos selectivamente. Si se cree que puede haber dificultades para ello pueden acercarse a la oficina de información de residuos. Allí les facilitaran guías, diccionarios y carteles que pueden ser de ayuda para la correcta separación de los residuos.
   El ayuntamiento se encargará de llevar los contenedores al lugar donde se vaya a celebrar la actividad. Si no hubiese alguna otra petición por parte del adjudicatario, se llevarán 2 contenedores para la fracción del orgánico (de 120 litros). A la finalización de la fiesta el ayuntamiento se encargará de recoger los contenedores y de llevarlo a la zona de emergencia.
   En el caso de que haya envases ligeros, papel/cartón o vidrio será responsabilidad del adjudicatario llevarlos al correspondiente contenedor.
j) Deberán depositar previamente una fianza de 375 euros.
k) Deberán utilizarse vasos reciclables.

**4. Adjudicación:**

La adjudicación de la explotación se hará por sorteo, el día 20 de julio a las 13:00 horas en el Ayuntamiento.

El sorteo se realizará entre todas las solicitudes presentadas. Se sacarán todas las solicitudes presentadas, estableciendo un orden de prioridad según el orden en que se van sacando.

No obstante, si se presentarán los adjudicatarios de los 2 años anteriores junto con otros solicitantes, la solicitud de los que ya fueron adjudicatarios no se incluirá en el sorteo, y el sorteo se efectuará entre el resto de las solicitudes.

Existe la posibilidad de compartir la explotación con las siguientes condiciones:

1. Se requerirá que los solicitantes que hayan resultado adjudicatarios en el sorteo estén de acuerdo con ello.
2. Se deberá respetar la relación surgida del sorteo, esto es, tendrán preferencia para compartir el 2º, el 3º, etc.
3. Caso de que decidan compartir la adjudicación deberán comunicarlo al Ayuntamiento.

**5. Derecho de explotación:**

El adjudicatario no podrá ceder el derecho de explotación a ningún otro grupo, asociación etc. En caso de que no estuviera interesado, deberá comunicarlo por escrito al Ayuntamiento de Bergara antes del 27 de julio de 2015, y éste adjudicará la explotación al solicitante que ha quedado en reserva en el sorteo.